



Kartzelako poemak

J. Sarrionandia

Kalitate handiko poemategia da. Hitzik gabe utzi nau. Hunkigarria, zirrargarria da... Zer esan ere ez dakit. Egia esateko, ez dakit ezer esan nahi ote dudan... Itzela da liburuan erakusten den giza sakonera – poetaren benetako sutegia eta arragoa–, non islaturik ikusi nahi genukeen geure burua poesia –bizitza, beste modu batez esanda– maite dugun guztiok.

Ez dakit Espainia aldean ba ote dagoen poetarik, Joseba Sarrionandiak euskaraz eta Euskal Herrian bezain altu hegan egiten duenik. Gaur egun, Spain herrietan badaude –nire ustez– sortzaile intelektual askotxo, hiperkultuak, batzuetan pedante samarrak eta bestetan kurtsi nabarmenak, oso akademikoak, hotzak,

eta koipezaleak ere bai. Ziur, poeta hunkigarri eta egiaziak egon ere badaudela. Dena den, Espainia aldean poeta handi bat zer den jakin nahi badute, jar dezatela espainieraz Sarriren poesia eta orduan poeta handi bat –Ehuneko Ehun Inongoa Ez Dena– euren erdaretaz irakurtzeko aukera izango dute.

“Nondik hasiko da Sarrionandia *zahartzen*?”, galde egiten zen liburuaren hitzaurrean. Edo, beste modu batez esanda, zein izan daiteke haren *Akilesen zaina*? Erantzun modura, burura datozkit Mikel Laboa, Lertxundi, Lete..., hau da, kantautore tradizionalak edo garai jakin batekoak. Nik garai hori bizi izan dut eta oraindik ere bizi dut –zeren barruan daramaguna barruan da betiko–. Garai hartako ikuspuntuak, sentimenduak, gorabehera sozial eta politikoak... neure egin nituenak –neure belaunaldia izan baita–, bai eta harekin loturiko hainbat eta hainbat alderdi ere, zeinekin identifikatzen naizen. Mikel Laboari –esaterako– darizkion tristura eta tragedia, hainbeste gatibatu gintuztenak, haren galeraren arrazoi ere badirenak belaunaldi berrietan edota geurean bertan –zeren, gainera, belaunaldi bakoitzak bere sutegi propioan, bere arragoa propioan erretzen baita... erabat kontsumitu arte–. Bizitza horrelakoa da. Eta horrekin, zera esan nahi dut, Sarrionandiak kartzelari buruz, sufrimenduari buruz, duintasunari buruz hitz egiten digula...; beraz, Kartzelako Poemak-ek euskal herriaren tragedian du bere jatorria, euskal gatazka historikoaren bilakaera kolektibo eta generazionalan du bere abiapuntua. Nahiz eta, literarioki hitz eginez, gatazka transzenditu egiten duen, hori guztiori altuera handiko literatura bilakatu arte, planetako edozein irakurlerekin komunikatzeko gai izateraino... Ia-ia Novalis dakarkit burura, bere dorrean eta bere tristura ia hil-zoriko hartan preso bizi zena –haren kasuan bere *borondatez* baina...

Ohartu al zarete zenbat musika-talde existitzen diren gaur egun Euskadin? Horietako asko etengabe ikus ditzakegu Hamaika telebistan. Eta beti azaltzen da norbait berria. Nola aldatu den paisaia musikala! Eta onera egin du, gainera. Eta hori ere gure gizarteak izan duen aldaketaren isla da (hau ere onerako, nire ustez). Egia da euskal kantautore klasikoen hainbat interpretazio eta hainbat egokitzapen egin direla, bai, hori ere egia da. Egia den bezala, ezen, euskal gatazkak dirauen bitartean, kartzelako poema hauek indarrean jarraituko dutela. Gatazka ez baita konpondu. Eta ez dut uste, gainera, euskal

gatazkaren muina konponduko denik (epe laburrean ez, behintzat). Beraz, Sarriren poesiak eremu handi eta zabala du oraindik, eta horregatik, esan daiteke Sarrionandiaren poesiak luzerako duela. Gainera, bizitza, zentzu askotan, kartzela bezalakoa ere bada, eta hori dela-eta sentimendu kartzelarioak beti izango du halako isla bat denon bihotzean, sentimendu horren proiektzioa kartzelako murrueetatik haratago doalarik.

Liburuan badago aipamen bat (edo bat baino gehiago), euskal herritar batzuek erakutsitako ausartasunari buruz, zeinak kartzelara eramane zituen. Eta onartu beharra dago oso ausarta izan behar duzula estatu oso bati –oso modu oinarritzeko antolaturiko gizabanako gisa– aurre egiteko. Dena den, gure artean “heroi” izengabe asko daude; den-dena ematen duten pertsonak (eta ez, akaso, kausa handi baten alde, baina bai beste helburu –ez dakit– apalago eta mundutarrago batzuen alde, zeinetarako ausartasun handia ere behar den). Izan ere, oso ausarta izan behar duzu familia bat aurrera ateratzeko; heroikoa ere izan behar duzu gizarte-segurantzako kuotak 40 urtez ordaintzeko; langile autonomo bat izateko (ordutegirik gabe, lan-baldintzarik gabe); beitu, horrek bere buruaz beste egin zuen gezurrezko auto-istripu batean eta bizi-aseguratuaren diruari esker bere familia kale gorrian gera ez zedin lortu zuen; emakume horrek esklabo paten pare lan egin zuen bere bizitza osoan familia aurrera ateratzeko (inork ez zion behar bezala eskertu); itxura zaharkitua eta inutila duen agure horrek duela bost urtetik egon zitekeen erretiroa hartuta baina ez du horrela egin bere alabari (ama ezkongabe eta orain langabezian gelditu denari) lagundu ahal izateko; familia horretan kideetako batek gaixotasun ikaragarria du baina ez dute amore eman eta kasik bizitzeari egin diote uko euren senideaz gorputz eta arima arduratu ahal izateko... Ehunka adibide jar nitzake... esan nahi dut ez dela beharrezkoa Conan Barbaroa edo Kapitan Amerika izatea txo/ño heroiko, ausart eta potroidun/obariodun bat izateko. Egia esan, batzuetan, ausartasun handiagoa dago istorio anonimo eta arruntetan hotsandiko eta ospe handikoetan baino. Eta gainera, bakoitzak bere ausartasuna erakusten du benetan inbolukratzen den hartan. Sarrionandiak dei bat entzun zuen eta dei horri jarraitu egin zion. Beste batzuek entzun bai baina gorrarena egin zuten. Eta beste batzuek, sinpleki esanda, ez zuten inoiz dei hura entzun edo... deia oso urrutitik zetorkien... eta, nolabait esateko, dei hura beraiekin ez zihoala deliberatu zuten.

Nolanahi ere, nik euskaldunei bihotz emango nieke euren ausartasuna erakuts dezaten karteletako murrueetatik kanpo, zeren geure herriaren alde askoz gehiago egin baitezakegu kartzelatik kanpo kartzela barruan baino –geure buruaren alde eginez–. Presondegira eramane gaitzaketen erabakiak ekidin beharko genituzkeela esan nahi dut. Benetan uste dut, ezen, gauzak beti horrela planteatuko bagenitu, estatuak errespetu handixeago gordeko ligukeela eta gurekin tratatzeko orduan zuhurrago ere ibiliko litzatekeela; areago, bakearen bideak (zeina sumisioarena ez den) eragiten du beldurrik handiena estatuko indar politiko eta sozialik fosilizatuenean artean. Azken finean, estatuaren eredu zentralizatuak frankismotik datoz, hau da, estatuak berak sorrarazten duen indarkerian euskarrizten diren erregimenetatik datoz, eta horregatik, joko horretan erortzea ekidin beharko genuke, zeren azken finean haiek espero dutena hori da –gu joko horretan jaustea– eta horregatik ibiltzen dira beti gu erakarri nahian... euren gerra-eremura.